



**EUSKAL EKONOMIAREN HAZKUNDE-AURREIKUSPENEN
BERRIKUSPENA, COVID19-AREN ERAGINA AINTZAT HARTUZ**

OGASUN ETA EKONOMIA SAILA

Ekonomia, Finantza eta Aurrekontu Sailburuordetza

Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

2020ko apirilaren 3a

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA EKONOMIA
SAILA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ECONOMÍA

1. Dokumentuaren irismena

COVID19 koronabirusaren bat-bateko agerraldi epidemikoa aparteko eragina izaten ari da Euskadiko osasunean, ekonomian eta gizarte-bizitzan. Pandemiak eragindako egoera hau berria da guztiontzat; egungo inork ez du egoera berri hau ezagutzen, eta hori zailtasun berezia da egoera horri erantzuteko. Edonola ere, egia osoa da erantzun horrek, lehenik eta behin, osasun-arlokoa izan behar duela, eta erantzun horrek dituen premien arabera antolatu beharko direla jarduera ekonomikoa eta gizarte-harremanak.

Halaxe egiten ari da; alabaina, hori horrela izanik ere, egia da Euskadik estrategia ekonomiko bat behar duela premiaz; lehenik, beharrezkoa den osasun-gastua finantzatzeko, eta, bigarrenik, enpresek eta pertsonak aurre egin beharreko larrialdi-egoerari ahal den neurrian erantzuteko.

Ekonomiaren eta gizartearen bilakaeraren bereizgarri den ziurgabetasuna inoiz baino handiagoa da, eta, hartara, erantzuna planifikatzeko beharra ere inoiz baino handiagoa da, haren mende egongo baitira emaitzak eta egoeraren kudeaketan izango den arrakasta erlatiboa.

Hori dela eta, zereginak zailtasun handia izango duela jakinik ere, etorkizuneko egoerei aurrea hartzeko gai izango bagara, ekonomia- eta aurrekontu-agertokiak proposatu beharko ditugu. Horretarako, lehenik eta behin, pandemiaren eragin ekonomikoa baloratzen saiatuko gara, eta, gero, bigarren dokumentu batean, likideziari zein defizitari dagokionez diru-sarreretan eta gastu publikoetan izango dituen ondorioak aztertuko ditugu, horiek finantzatzera zuzenduko diren neurriak hartzeko.


Denborak aurrera egin ahala, espero dugu ziurtasun handiagoz ikustea zer gerta daitekeen hazkunde-egoerarekin, ekonomiaren bilakaerak eta hartutako zerga-neurriek diru-sarreretan izango duten eraginarekin, eta politika sektorialek hartutako neurrien ondoriozko gastuen zenbatespenarekin. Zalantzarik gabe, erantzun-neurrien bloke nagusia jada zehaztuta dago, bai martxoaren 17ko eta 24ko Gobernuaren erabakien bidez, bai Estatuko Administrazioak bere lehen lege-dekretuetan hartutako neurrien bidez. Haatik, hori guztia zehaztu, zabaldu eta birformulatu beharko da, gertaeren nondik norakoak kontuan izanik.

2. Pandemiaren ondorio ekonomikoak

2.1. COVID19aren pandemia Euskadin

Joan den martxoaren 5ean agerraldi epidemikoa gertatu zenetik, eta gaur egunera arte, etengabe hazi da modu esponentzian kutsatutako populazioaren ehunekoak eta oso foku lokalizatuetan egin du. Gero foku horiek Euskal Autonomia Erkidego osoan zabaldu dira, baina oso modu desberdinean.

2.1. grafikoa. Kutsatuen kopuru absolutua eta kutsatutako populazioaren %a (Clinical Attack Rate, CAR)




Iturria: bertan landua, Osasun Ministerioaren eta Osakidetzaren datuetan oinarrituta

2.1. grafikoa epidemien ezaugarri den portaera hori deskribatzen du. Epidemien existentzia ezagutzeko hasierako faseen ondoren, azelerazio-fase batera igarotzen da, gailurraren bila, gero jaisten hasteko. Kasuen kopuru absolutuak agerian uzten du epidemiaren garrantzi handia, baita eraginpean dagoen populazioaren ehunekoak ere, beste esperientzia batzuekin zuzenean alderatzeko aukera ematen baitu, kasu honetan Euskadiren eta Espainiaren artean alderatzeko. Edonola ere, adierazle horrek funtsezko zailtasunak ditu, bidezko testak egiteko moduaren araberakoa izango baita eraginpean dauden pertsonen ehunekoak.

Epidemien ziklo estandarren ibilbide hori kontuan hartuta, interesa ez datza kutsatuen ehunekoak edo kasuen kopuru absolutua ezagutzeko soilik; interes handia du kurba horren bilakaera logaritmikoa ezagutzeko, pandemiaren benetako joeraren berri ematen baitu, baita jaisten hasi aurreko maximoa lortzeko aukeraren berri ere.


Kurba logaritmikoa jatorrizkoaren maldaren berri ematen duenez gero, pandemiaren aurrerapen-erritmoa konstantea bada, bizkortzen bada edo mantsotzen bada, erraza izango litzateke kontzeptu bererako hurbilketa egitea, nahikoa litzateke kasu kopuruaren aldakuntza absolutuaren jarraipena egitea —horregatik jartzen zaio arreta handia aldagai horri hedabideetan—.

2.4. grafikoa. CFR (Case Fatality Rate): hiltzen diren kutsatuen %a



Iturria: bertan landua, Osasun Ministerioaren eta Osakidetzaren datuetan oinarrituta

2.5. grafikoa. Zainketa Intentsiboko Unitatean ospitaleratutakoen kopurua (milioi biztanleko. Eskala logaritmikoa)



Iturria: bertan landua, Osasun Ministerioaren eta Osakidetzaren datuetan oinarrituta

Horrez gain, badira pandemiak dakarren erronka ulertzeko garrantzitsuak diren beste aldagai batzuk. Berez duen balioaz gain, lehen postuan jarri behar da hiltzen diren kutsatuen ehunekoa, gaixotasunaren larritasunaren funtsezko adierazpena baita eta gaixotasunari aurre egiteko modua baldintzatuko baitu. Kasu honetan faktore hori funtsezkoa da, eta ez hainbeste biztanleria aktiboan duen eragina; are gehiago kontuan hartzen bada pandemiak ez duela eragin berdina biztanleria multzo guztietan, eta eragin handiagoa duela adineko pertsonengan.

Azkenik, pandemiak osasun-sisteman eragiten duen tentsioari buruzko adierazle garrantzitsu bat dago: Zainketa Intentsiboko Unitatean ospitaleratutako pertsonen kopurua. 2.5. grafikoko datuek erakusten dute milioi biztanleko Zainketa Intentsiboko Unitatean ospitaleratutako pertsonen kopurua modu esponenzialean hazi dela, eta horrek argi islatzen du zer presio egiten den osasun-sistemaren erantzun-ahalmenaren gainean. Bi adierazle horiek oso eragin desberdina dute osasun-sistemetan, eta, Euskadiren kasuan, esan daiteke egoera ona dela, bai heriotzeen ehunekoari erreparatuta, bai asistentzia-tentsioa jasateko ahalmena kontuan hartuta.

Inguruabar multzo hori adierazgarria da pandemiari erantzuteko modua ulertzeko garaian. Osasun-sistemaren erantzun-ahalmena kontrolatzeko modua kutsadura-kurba lautzearen mende dago, eta lautze hori aplikatu beharreko konfinamendu-neurrien intentsitatearen mende dago. Horrek, era berean, ekonomiaren moteltzea eragingo du eta horren ondoriozko eskaintza- eta eskaera-shockak baldintzatuko ditu. Hartzen diren neurrien arabera eta horien iraupenaren arabera aldatuko dira gaixotasunaren eta konfinamenduaren ondoriozko absentismoa eta absentismo profilaktikoa, eta horien arabera geldiaraziko dira zuzenean ekoizpen-jarduerak.

2.2. Pandemiaren ekonomiaren irakaskuntzak

Hauek dira pandemiaren ekonomiak aztertzen dituen faktoreak¹, bereziki gaur egungo egoeraren gisako egoera batean ekonomiaren bilakaera baldintzatzen duten bi faktore abiapuntu izanik: pandemiak populazioaren gainean duen eragina eta pandemiaren iraupena. Populazioaren gainean duen eraginari dagokionez, adierazgarriak dira, batetik, sintomak dituen populazioaren proportzioa (1918ko sukarrean % 25ekoa izan zen eta COVID19arekin % 20-25ekoa izango dela zenbatetsi da), eta, bestetik, hiltzen diren kutsatuen proportzioa (1918an Ingalaterran eta Galesen 201.000 pertsona hil ziren, 40 milioitik).

Argi dago gizartearen portaeran zein osasun publikoan izandako aldaketek eragozten dutela pandemia historiko haren ondorioak egungo ekonomiara estrapolatzea. Hala ere, datu historikoek oinarri bat ematen dute gaur egun izango lituzkeen ondorioetara hurbiltzeko, bestela ezinezkoa izango bailitzateke. Nolanahi ere, bi faktore horien inguruan egiten diren hipotesiek erabat baldintzatzen dituzte aurreikuspenen emaitzak.

Izan ere, bi faktore horiek baldintzatzen dute, halaber, gertatuko diren bi “shock”en garrantzia. Krisialdiaren jatorria ez dago eskarian eta eskaintzan, balio-kateen geldialdian baizik, eta geldialdi horrek eskaintzaren eta eskariaren shock bikoitza sortzen du. Eskaintzaren shocka, aldi berean, pandemiak giza kapitalean duen inpaktuaren baldintzapean dago (gaixoak, lanpostuetako absentziak, eta abar); eskariaren shocka, berriz, kontsumoaren bilakaeraren baldintzapean dago, bereziki kontsumo sozialaren baldintzapean. Era berean, eskaintzaren

¹ Wren-Lewis S., et al. (2010), “The possible macroeconomic impact on the UK of an influenza pandemic”, Health Economics, 19, 1345-1360 orrialdeak.

shockak eta eskariaren shockak eragin desberdina izango dute ekonomian, behin betiko eragina izan edo aldi baterako eragina izan, hau da, ekoizpena zein kontsumoa behin betiko desagertzen den edo pandemia amaitu eta gerorako geratzen den kontuan hartuta.

Pandemiak biztanleria landunarengan duen inpaktuak markatzen du eskaintzaren shocka. Biztanleria landunaren gaineko inpaktua, halaber, heriotza-kopuruaren, gaixotasunak eragindako absentismoaren eta ezarritako konfinamendu-neurriek eragindako absentismoaren mende dago. Azterketa horrek, neurri posibleen artean, ikastetxeen itxiera eta itxieraren iraupena nabarmentzen ditu, ikastetxeen itxierak absentismoan eragin handia duela uste baita. Era berean, absentismo profilaktikoa ere aipatzen du, kutsatzea saihesteko lanera joateari utziko dion populazio osasungarriaren artean emango den absentismoa hain zuzen ere. Faktore horiek guztiek ekoizpen-ahalmena murrizten dute, eta galera hori konpentsa daiteke: aparteko orduen garapenaren bidez, kasu batzuetan eskulana kapitalarekin ordeztaren bidez, ekoizpen-stockak erabiltzearen bidez edota ekoizpena beste ekoizpen-zentro batzuetara deslokalizatzearen bidez. Ondorio horiek guztiek, halaber, ekoizpen-kostuak handituko dituzte, eta horrek inflazio-tentsioak eragin ditzake. Horrek guztiak eragina izango du inbertsio-erabakietan, eta eragin hori ere aldatuko da, pandemiak irauten duen denboraren arabera.

Eskariaren shockari dagokionez, gaixorik dagoen populazioaren eragina txikia izango da, eta eraginaren iraupena populazioa gaixorik dagoen egunetara mugatuko da. Haatik, kutsatzea saihestu nahi dutenen artean gertatuko da kontsumoaren beherakada. Kontsumoaren beherakada hori nabarmenagoa izango da aisiarekin (kirolarekin, kulturarekin, entretenimenduarekin, jatetxeekin, eta abarrekin) eta garraioarekin zerikusia duen guztian, edo euste-arrazoiengatik itxi behar diren saltokiekin zerikusia duen guztian. Aisialdian eta garraioan gertatzen den gastuaren kasuan, kontuan hartu behar da gastu hori geroratu baino gehiago behin betiko galduko dela. Beste kontsumo mota bat (autoak, altzariak, arropa eta abar erostea), aldiz, geroratuko da eta pandemiaren ondoren egingo da —hurrengo hiru hilekoan, edo urte honen barruan, edo hurrengo urteetan—. Bestalde, Internet bidez egiten diren erosketa gero eta ugariagoek kontsumoaren beherakada hori arinduko dute. Hori guztia etxeetako kontsumoari dagokionez. Bestalde, gastu publikoak handitzeko joera izango du, egonkortzaile automatikoen eraginez eta ekonomia bultzatzeko neurrien eraginez. Gastu horren osaera ere aldatuko da, gastu sanitarioak hazkunde handiak izango baititu eta hezkuntzako gastua, berriz, murriztuko baita. Azkenik, eskariaren shockak deflazio-tentsioak sortuko ditu.

Azterketak onartzen du eskariaren shocka eskaintzaren shocka baino kaltegarriagoa dela ekonomiarentzat, hazkundeari dagokionez; alabaina, deigarria da bi shocken emaitza garbia positiboa izatea inflazioaren arloan, nahiz eta eskariaren shockak efektu aringarria izan.

Kanpo-eskariari dagokionez, pandemia bat denez gero, ondorioak antzekoak izan daitezke alde guztietan, eta kanpora gehien irekitako ekonomiak izan daitezke kaltetuenak.

Hartara, Barne Produktu Gordinaren hazkundearen gaineko eragin-tartea honako aldagai hauen gaineko hipotesien aldakuntzaren ondorio da:

- Sintomak dituen populazioaren proportzioa (Clinical Attack Rate, CAR, ingelesez)

- Hiltzen diren kutsatuen proportzioa (Case Fatality Rate, CFR, ingelesez)
- Pandemiaren iraupena
- Gaixotasunaren sendatze-egunak, zuzeneko absentismoaren gainean eragina duena
- Ikastetxeak itxita dauden asteak, zeharkako absentismoaren gainean eragina duena
- Absentismo profilaktikoa, hein handi batean alarma-egoeraren ondoriozko euste- eta konfinamendu-neurrien mende dagoena.

Wren Lewis-ek eta beste batzuek (2010) egindako lanaren arabera, jasaten ari garenaren gisako pandemia baten eragina 6 hamarren eta 6,1 puntu artekoa izan daiteke, Barne Produktu Gordinaren hazkunde-aurreikuspenetan, betiere adierazi berri ditugun aldagaien portaeraren arabera. Lehenengoek pandemiaren larritasuna ezaugarritzen dute, eta horrek, aldi berean, erantzun-neurriak zehazten ditu. Neurri horiek, normalean, eskolak ixtea eta jarduera nolabait geldiaraztea eragiten dute, eta neurri horien iraupena erabakigarria da hazkundearen aldakuntza-tarte zabal horren barruan mugitzeko. Ikus dezagun orain euskal ekonomian espero daitezkeen eraginen hurbilketa bat.

2.3. Espero diren ondorio ekonomikoak


Egunoa bezalako une batean, aurreikuspen makroekonomikoak egiteko edozein jardun hegazkortasun eta ziurgabetasun handiaren mende dago. Txinan pandemia lehertu zen lehen unetik, berrikuspenak egin zituzten ekonomia-behaztaileek; hasiera batean, aurreikuspen horiek benetan adeitsuak ziren, baina pixkanaka serioago eta kezkarriago bihurtzen hasi ziren.

Ekonomiako Lankidetzak eta Garapenerako Erakundeak, adibidez, berriki onartu du koronabirusak munduan izango duen inpaktuak bere aurreikuspen ekonomiko txarrenak gaindituko dituela. Martxoaren hasieran baieztatzen zuen, bere hipotesirik okerrenaren arabera, koronabirusak 2020an munduko ekonomiaren hazkundera erdira murriztuz zezakeela eta % 1,5ean utz zezakeela, Europako edo Japoniako ekonomietan atzeraldia eraginez. Martxoaren 27an, analisia eguneratu zuenean, kalkulatu zuen ekonomia handien jardueraren herena egongo dela eraginpean, eta euste-hilabete bakoitzeko Barne Produktu Gordinaren hazkundera 2 puntu murriztuko dela.


Goldman Sachs bankuak, bere aldetik, lehen hurbilketa batean, euroguneko ekonomia nagusien aurreikuspen ekonomikoak oro har murriztu zituen. Eurogunek, 2020an, % 1,7ko beherakada izango luke, aurrez % 1eko hazkundera aurreikusi zenean. 2021ean, berriz, gorakada % 3,5koa izango dela aurreikusi zuen, aurrez aurreikusten zen % 1,3ko gorakadaren aldean. Espainiaren kasuan, 2020rako % 1,3ko beherakada aurreikusi zuen, hasiera batean aurreikusten zuen % 1,8ko hazkundearen aurrean. Berrito ere, kanpoko eskariaren murrizketa, hornidura-kateen etetea eta etxeko eskariaren beherakada ziren okertze horren bektoreak. Beherakada horren ondoren, erakundeak ere susperraldi handia gertatuko zela adierazi zuen; izan ere, 2021ean hazkundera % 4,3koa izango zela kalkulatu zuen, hasieran aurreikusitako % 1,7aren aldean.

Haatik, Goldman Sachs bankuak berak, martxoaren 24an, beheranzko berrikuspen argia argitaratu du eta iragarri du Barne Produktu Gordinaren beherakada %9koa izango dela eurogunerako eta % 11,6koa Espainiarako, eta errebote handia izango duela 2021ean % 7,8koa eta % 7,9koa, hurrenez hurren.

2.6. grafikoa. Kutsadura-kurbari eusteko neurriak eta jarduera ekonomikoarekin duen lotura



Iturria: Richard Baldwin and Beatriz Weder di Mauro (edit. 2020): *Mitigating the COVID economic crisis: Act Fast and Do Whatever it Takes*. CEPR Press.



Martxoko PMI indizeen beherakada kontuan hartzen badugu —Atzeraldi Handia lehertu zen garaikoak baino handiagoak izan dira— eta indize horiek eurogunean lehen hiruhilekoan % 2ko beherakada izan dela adierazten dutela kontuan hartzen badugu, ez dago zalantzarik bigarren hiruhilekoko datuak izugarri negatiboak izango direla. Hori dela eta, Morgan Stanleyren ustez, aldi horretan euroguneko Barne Produktu Gordina urtean % 12 jaitsiko da, eta, beraz, susperraldi azkarra eta handia gertatzen bada ere, atzeraldia gertatuko da argi eta garbi.

Bestalde, Wren Lewis-ek eta beste batzuek egindakoaren gisako ariketa bat Euskadira ekartze hutsarekin, ikus daiteke —2020rako Barne Produktu Gordinaren azken hazkunde-aurreikuspenak kontuan hartuta— % 1,3 inguruko hazkundera izango litzatekeela kasurik onenean (konfinamendu-hilabete bat) eta -% 4,2ko beherakada kasurik okerrenean (hiru hilabeteko konfinamendua) —2009an, Atzeraldi Handiaren ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoan Barne Produktu Gordinak -% 4,1eko beherakada izan zuen—.

Izan ere, hazkunde horren gaineko eraginaren zati handi bat pandemiaren euste- eta prebentzio-neurriek eragingo dute, pandemiak berak baino gehiago. Neurrien gogortasunak eta iraupenak lotura zuzena du atzeraldiaren beraren sakontasunarekin eta iraupenarekin, baina seguraski balantzeak ez du izango 2.6. grafikoan irudikatutako eredu teorikoek aurreikusten dioten proportzionaltasuna. Izatez, ekoizpen-jardueren kasuistika askotarikoa da, ekar dezaketen arriskuaren eta eragiten duten galera ekonomikoaren arteko erlazioari dagokionez, eta, gainera, ez da erraza funtsezko jarduerak definitzea, ekoizpen-sistema ezaugarritzen duen mendekotasun-katea aintzat hartuta.

Logikoaenez, azken ondorioa alarma-egoera horren iraupenaren arabera izango da; beraz, egoera hori luzatzeak eragin zuzena izango du aurreikuspen horietan.


Jarduera-mailen gaineko eraginak bezalaxe, lan-merkatuaren gaineko eraginak ere nahiko zalantzarriak izango lirateke; izan ere, egungo salbuespenezko egoeran, enplegatzaileen erantzuna egongo da —hein handi batean bederen— enplegatzaile bakoitzak egungo plantillei eusteko dituen aukeren mende eta diru-sarreraren murrizketa bere gain hartzeko dituen aukeren mende, betiere egungo egoeraren iragankortasun-itxaropenaren aurrean.

Espainiako ekonomiaren kasuan, CEPREDE zentroak kontsumoaren beherakadaren ondorioak kalkulatu ditu, eta horretarako abiapuntuko hipotesizat hartu du jarduera-adar bakoitzean zenbatetsitako ekoizpen-murrizketen baliokidea den enplegu-galera bat gertatuko dela, jarduera-adar bakoitzaren enplegu-koefizientearen arabera (landunen kopurua milioi fakturazioko). Eraitza enpleguaren erabateko beherakada da, eta 300.000 enplegutik gorakoa izan daiteke.


CEPREDE zentroaren zenbatespenak -1,7 puntuko eragin negatiboa dakar, betiere konfinamenduak hilabeteko iraupena izango duela kontuan izanik; gainera, kontsumoan duen eragina soilik hartzen du kontuan, eta ez eskariaren gainerako osagaietan duen eragina. Konfinamenduko epea 3 hilabetera luzatuz gero, Barne Produktu Gordinaren aldaketa -4,2ra iritsiko litzateke, eta horri eskaeraren beste osagaien eragina gehitu beharko litzaioke, hau da, inbertsioaren eta esportazioaren eragina. Badakigu osagai horien jarduera bertan behera uztearen ondoriozko eragina garrantzitsua izango dela, dagoeneko ia 170.000 langile baitaude Aldi Baterako Enplegu Erregulazioko Espedienteen eraginpean, eta badakigu langile horien zati

handi bat enpresa handiei dagokiela (CAF, Mercedes, Michelin eta esportaziara erabat bideratutako beste enpresa handi batzuei).

2.7. grafikoa. Kontsumoaren beherakadaren eragina Espainian: jarduera-adarrak eta autonomia-erkidegoak



Impacto sobre el PIB regional (Nacional -1,7)



Fuente: CEPREDE. 23 de marzo de 2020


2.8. grafikoa. Kontsumoaren beherakadaren eragina EAEko BPGn eta enpleguan, jardueradarren arabera



País Vasco



Impactos relativos sobre las diferentes ramas de actividad y peso relativo sobre el PIB regional




Efectos sobre el empleo



Aumento estimado de la tasa de paro : 0,9%

Aportación a la caída del PIB por ramas de actividad



Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, espero den eragina Espainiaren kasuan kalkulatutakoaren parekoa litzateke; izan ere, BPGn eragina -% 1,6koa izango litzateke, horixe izanik Cepredek Euskadiko ekonomiaren kasuan aurreikusitako hazkunde-tasa, eta hazkundera, beraz, nulua izango litzateke. Enpleguan eragina esanguratsua eta Espainiako ekonomian espero denarekiko proportzionala izango litzateke eta 15.000 enplegu galduko lirateke, eta horren ondorioz enplegua sortzeko espektatibak negatibo bihurtuko lirateke eta langabezia-tasa 0,9 puntu igoko litzateke. Ostalaritza, Merkataritza eta konponketa eta Beste zerbitzu batzuk izango lirateke, besteak beste, galdutako enpleguaren zatirik handiena pilatuko luketen sektoreak.

Beste kalkulu batzuek kontuan dituzte eskariaren osagai guztiak, eta, gainera, iraupen-denbora ezberdineko bi agertokitarako. Horrela bada, AFIk (Nazioarteko Finantza Analistak) aurreikusten du V formako 45 eguneko murrizketa-agertokian Espainiako ekonomia $-2,6$ uzkurtuko dela, $-4,5$ eko uzkurtze-eraginaren ondorioz, eta langabezia-tasak hiru puntu egingo dituela gora. Agertoki horretatik U formako 60 egunetik 70 egunera bitarteko murrizketa-agertoki batera pasatuz gero, uzkurtze-eragina areagotu egiten da, eta horrek eragingo luke BPG $\% 6,1$ era jaistera eta langabezia-tasak bost puntu gora egitea.

Espainiako Ekonomiari buruz egin berri den beste estimazio bat FEDEAren², da, eta shock ezberdinek kontsumoan, etxebizitzan, likidezian eta ekoizpenaren geldiarazpenean –guztietan garrantzizkoena izanik– dituzten eraginak zenbatuta, eta konfinamenduaren amaiera apirilaren 11n jarrita, Espainiako ekonomiaren BPGn $-4,1$ eko beherakada aurreikusten du 2020rako, eta areagotu egingo litzateke alarma-egoera luzatuko balitz; izan ere, beste astebetek $-0,4$ ko eragina izango luke BPGn. Horrez gainera, aurreikusten du sektore publikoaren konpentsazio-jarduketak, iragarritako neurri-sorta guztiekin, BPGren $\% 3,5$ era arteko defizita suposatu dezakeela eta konpentsazio-eragin handia izango lukeela aurreko agertokiaren gainean, beherakada $-0,6$ koa bakarrik izateraino.

3. Euskadiko 2020rako koadro makroekonomikoaren berrikuspena

Une hauetan daukagun ezohiko egoera honetan, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak ahal duen guztia aurreratu du Euskadiko 2020rako koadro makroekonomikoaren berrikuspena. Berrikuspena aurreratze horrek eragin du egoera normalean oso ortodoxoa izango ez litzatekeen moduan jardun behar izatea, egoera salbuespenezkoa denez gero eta une hauetan ziurgabetasuna handia denez gero.

Alde horretatik, eta era honetako ekitaldietarako erabili ohi diren aldagaiez gainera, pandemiaren aurka borroka egiteko alarma-egoerak jarduera ekonomikoa murrizteko ezarri dituen neurrien intentsitatearekin eta neurri horiek izango duten iraupenarekin zerikusia duten beste hipotesi batzuk ere ezarri behar izan dira. Hori dela-eta, egungo aurreikuspenen balioa, adierazitako testuinguru hegakor eta zalantzazko honetan, ezinbestez aldatu egingo da baldin eta konfinamendu-neurriak oraindik ere gehiago estutzen badira edo, beste alde batetik, denboran luzatzen badira.

Lanerako oinarritzat egungo hilabeteko konfinamendu-agertokia (martxoaren 29ko EDren ondoren) eta normaltasunera pixkana itzultzeko hipotesia, 45 eta 60 eguneko trantsizio-aldia eskatzen duena, hartu dira. Bi hipotesi, aldaketa-moten hipotesien aurrean gerta litekeena baino eragin handiagoa izan dezaketenak egungo egoeran, adibide bat jartzearen.

Hipotesi horiekin, Euskadiko ekonomia 2020rako $-3,6$ uzkurtzea espero da, eta 2021erako $\% 2,6$ haztea, eta horrek adierazten du susperraldia U formakoa izango dela V formakoa baino gehiago. Aurreikusten da 2020ko lehenengo bi hiruhilekoetan hiruhileko arteko BPGk

² J. E. Boscá, R. Doménech eta J. Ferri. (2020), “El Impacto Macroeconómico del Coronavirus”, Fedea, Apuntes 2.

negatiboak izatea eta hondoa urteko bigarren hiruhilekoan jotzea, eta, ondoren, hurrengo bi hiruhilekoetan hazkundeak izango badira ere, ez dute konpentsatuko lehenengo bi hiruhilekoetan izandako beherakada.

Eskariaren ikuspegitik, azpimarratzekoa da etxeetako kontsumoaren 4,4 puntuko beherakada urteko batez bestekoan, eta horrek, erantsi horren garrantzia dela-eta, BPG osoa arrastatzen du. Behera egiten dute inbertsioak, 4,1 puntu, eta kanpoko eskariaren ekarpenak ere, esportazioen beherakada erlatibo handiagoaren ondorioz, eta 0,6 puntu egiten du atzera, beraz. Gora egiten duen balio bakarra kontsumo publikoa da, 4,6 puntu igotzen baita, ekonomiaren egonkortzaile automatikoez nahiz osasun publikoa bezalako kontu-sailetan gastu publikoa igotzeko ezohiko neurriek bultzatuta, eta konfinamenduaren eraginak arintzeko ezarritako neurrien ondorioz.

Eskaintzaren aldetik, konfinamendu-neurriek ekoizpen-sektore guztietan dute eragina. Industria-sektoreak EAera iritsi aurretik jasan zuen koronabirusaren lehenbiziko kolpea, balio-kate globaletan zuen eraginaren ondorioz, eta urteko batez besteko beherakada 3,9 puntukoa izango du; zerbitzuek, aldiz, 3,3 puntuko beherakada izango dute, urtearen bigarren zatian industriak izango duena baino beherakada handixeagoa izango baitute. Bestalde, eraikuntzan ere negatiboak izango dira hiruhilekako hazkundeak urteko bigarren hiruhilekotik aurrera.

EUSKADIKO EKONOMIAREN HIRUHILEKAKO AURREIKUSPENAK (2020ko martxoa)

	2020				2020	2021
	I	II	III	IV		
BPG	0,1	-6,2	-4,5	-3,9	-3,6	2,6
Gastua azken kontsumoan	0,7	-4,6	-3,2	-2,8	-2,5	2,4
Gastua etxeetako kontsumoan	-0,3	-8,1	-4,9	-4,3	-4,4	3,5
Gastua AAPPen kontsumoan	4,4	8,4	3,1	2,6	4,6	-1,2
Kapital-eraketa gordina	0,5	-7,6	-4,8	-4,5	-4,1	3,2
Barneko eskariaren ekarpena	0,7	-5,5	-3,8	-3,3	-3,0	2,7
Kanpoko saldoaren ekarpena	-0,6	-0,8	-0,7	-0,6	-0,6	-0,1
Lehen sektorea	7,8	-9,6	-6,7	-9,9	-4,6	5,9
Industria eta energia	-1,5	-6,8	-4,0	-3,5	-3,9	3,0
Eraikuntza	0,6	-4,6	-3,2	-2,9	-2,5	1,7
Zerbitzuak	0,4	-5,8	-4,2	-3,6	-3,3	2,2
Balio erantsi gordina	0,1	-6,0	-4,1	-3,6	-3,4	2,4
Produktuen gaineko zerga	0,4	-7,8	-7,5	-6,6	-5,4	3,8
BPGren deflatoarea	0,7	0,5	0,7	0,9	0,7	1,3
Enplegua	-0,3	-4,0	-2,2	-0,4	-1,7	1,6
Langabezia-tasa	9,4	14,0	12,0	10,2	11,4	9,6

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Azkenik, lan-merkatuari buruzko aurreikuspenek erakusten dute enpleguaren urteko batez besteko beherakada 1,7 puntukoa izango dela, eta horrek adierazten du 17.000 enplegu galduko direla eta langabeziaren urteko batez besteko tasa % 11,4koa izango dela. 2021ean,

aldiz, enpleguak 1,6 puntu egingo ditu gora, eta horrek adierazten du 15.000 enplegu sortuko direla eta langabezia-tasa berriz ere % 10etik beherakoa, % 9,6koa, izango dela, nahiz eta ez den lortuko 2020an galdutako enplegu guztia berreskuratzea.